

'Ondas sonoras'



IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Euskarak eta euskaldunok pairatzen dugun hizkuntza-errealitatearen berri ez lukeen norbait harrituko litzateke gure ohitura linguistiko oso zabaldu batekin, aipu gehienak erdaraz esatearekin alegia. Oso fenomeno bitxia da, benetan.

Gauza jakina da euskaldunok diglosia-egoeran bizi izan garela mendetan. Gaur egun ere diglosia oso nabarmena da gure egunerokoan, lpar zein Hegoaldean. Kontsumitzen ditugun medio, kultura-ekitaldi eta abar gehienak erdarazkoak dira. Ikasi ere gutariko askok erdaraz ikasi genuen, berrogeitaka urtetik gorakook halabeharrez... Ulergarria da, beraz, horrela gertatzea, aipu horietako ia guztiak frantses-espainol erdaretan ezagutu baititugu.

Ulergarria, beharbada. Ez, ordea, onargarria, nire iritziz. Aipuak jatorrizko hizkuntzan egin behar dira, hots, egi-leak esan edo idatzi zituen hartan; edo, bestela, norberarenean. Ez du zentzurik hirugarren lengoia batera itzulita aipatzea, behintzat kultur maila ertaina bide duen eta euskaraz normaltasunez

Euskadi Irratian ohiko kolaboratzaile bati entzunikoa ekarriko dut gogora. Urteberriko Vienako Kontzertuaren kronika ari zen egiten, eta musika-piezen izenburuak gaztelaniaz esan zituen (!!!)

aritzeko gauza den norbaiten kasuan.

Are larriagoa den antzeko zerbait ere egiten dugu: zehatz-mehatz aipu ez diren beste hitz eta esamolde erraz asko ere erdaraz esaten ditugu euskaraz egiterakoan. Esaldi osoak, maiz. Ziur aski, diglosia horrek berorrek sorrarazitako ohitura da hein handian. Baina ohitura hori, utzikeria baino ez da, alferkeria hein osoan.

Egia esan, ez dut ulertzen kultur maila ertaina duten eta euskaraz trebetasun normal batekin aritzeko gauza diren norbaitzuk horiek nola ez diren gai erdaraz entzun edo irakurri ei dituzten kontutxoak euskaraz esateko euskaraz aritu behar dutenean. Larritasun maila ez da bera, noski, lagunen arteko mintzaira informala denean edo testuinguruak eskaturiko maila jasoagoan aritzen direnean, hitzaldi, lezio edo kazetaritza-lan batean kasu.

Adibideak ugariak lirateke. Bat aipatzearren, lehengoan Euskadi Irratian ohiko kolaboratzaile bati entzunikoa ekarriko dut gogora. Urteberriko Vienako Kontzertuaren kronika ari zen egiten, eta musika-piezen izenburuak gaztelaniaz esan zituen (!!!). Zur eta lur geratu nintzen. Uler nezake zaila suertatzea Johann Strauss semearen *Schallwellen* pieza ezagunaren izena alemanez ahoskatzea esate baterako; baina hain zaila ote zitzaion *Soinu Uhinak* euskaraz esatea, espainierazko *Ondas Sonoras* esan beharrean?

Utzikeria, argi eta garbi. ●

2021 EuskarAbentura

expedizioa

IZEN EMATEA ZABALIK!

- Matrikulazio epea zabalik
- Martxoaren 12ra arte

▶ www.euskarabentura.eus

Babesleak

Laguntzaileak

Hedabide laguntzaileak